

Sagardoa, oraina eta geroa

Sagardotegien denboraldia ireki berri dute Astigarragan. Abraham Olano txirrindulari ohia gonbidatu dute irekie-rarako eta ekitaldiak oihartzun zabala izan du komunika-bideetan. Aurrerantzean, jende oldeak joango dira Euskal Herriko sagardotegietara, bertako jan-edanaz goatzera eta sagardoa eta sagardotegietako giroa ezagutzera. Sa-gardogileek negozioa egingo dute. Hala ere, sagardote-gietan bildutako jendetzak eta sagardotegien irabaziek ez lituzkete itzalean utzi behar sagardoari berari buruzko go-goetak (edariaren kalitatea, ekoizteko modua...) eta kon-tsumitzaileen eskubideak. Ez baita ahaztu behar sagardoa dela sagardotegien oinarria.

Abraham Olanok eman zion hasiera sagardo denboraldiari.

